

Gezuraren kontra, antzerkia



Tartufo eta Zekena

Jatorrizko izenburua: *Tartuffe ou l'imposteur* eta *L'Avare ou l'école du mensonge*

Egilea: Jean-Baptiste Poquelin, *Molière*

Itzultzailea: Juan Martin Elexpuru

Argitaratze urtea: 2008

Argitaletxea: Alberdania&Elkar

KARLOS DEL OLMO

Iruzurra eta gezurra: horra hor bi gai unibertsal, batere gaurkotasunik galdu ez dutenak, entsegurik edo trataturik sakonenak baino era eraginkorragoan denon agerian jarriak endredo komediak direla bitarte. Helburu pedagogikoa, salaketa politikoa eta ondo pasatzeko aukera garai hartako (eta gaurko?) herriaren gustu eta gurariatatik oso hurbil zegoen jolas dramatiko ia eredugarri batez gauzatuta. Molièrereren literatura dramatikoak bi balio muntadun biltzen ditu bere barrura: literatura ona izatea, landua, helburu poetikoa daukana izatea eta, aurrekoa bezain garrantzizkoa, eszenan behin eta berriro saiatua izatea, benetan antzeztearen ondorioz ondua. Euskal literatura munduan txikia da, baina ez merkatuaren marasma erraldoian galdutako beste literatura batzuk baino areago. Eta guztiarekin ere, ez ei du munduan saltzeko moduko dramaturgorik; hala dirudi, behintzat, Jaurlearitzak, editoreek, unibertsitateko jakintsuek eta kritikariek inoiz ere proposatzen eta promozionatzen ez dituztelako nazioarteko azoketan, ezta han-hemenka diru publikoz argitaraturiko antologietan sartzen ere. Bestalde, ez da halako harrigarri, euskal antzerki taldeek ia ez dutelako euskal idazleen literatura dramatikorik taularatzen. Aitu horietako batzuek Euskal Herriak omen duen eleberrigile bakarraren bitartez lortu gura ei dute "lehen euskal Nobel saria". Beste literatura batzuek, ordea, Nobel saria dramaturgoei esker eskuratzen dute. Baina gurean inorenaz inor ez estutzen.

Aurrekoak oina ematen du, bestalde, ostera ere nabarmentzeko Literatura Unibertsala bilduma zenbateraino den eredugarri, beste ahalegin pribatu batzuk ez legez, genero dramatiko itzulia argitaratzeari doakionez, zama txikia izan arren bilduma osoa aztertuz gero, dena dela, plazaratu egiten duelako, lantzean-lantzean, eta ez da gutxi. Azken batean, beraz, literatura dramatikoaren aldetik ere, Literatura Unibertsala bildumarik ez balego, bertatik asmatu behar genuke, ote ez oterik gabe.

Juan Martin Elexpuruk ez du sail errazik izan, berez, jatorrizkoan hainbat biderrean taularatu izan diren lan bi euskarara ekartzean, ezin izan dituelako itzulpenak eszenategian saiatu. Dena dela, euskal literaturak, bere txikian, badu eredurik ahoz esateko diren testuak emateko orduan, errimatuak eta guzti. Eta ederto moldatu da berbazkoaren arintasunaren jabe den itzulpena atontzen, are ahapaldi errimatuetan emandako antzezlanean ere.

Dena dela, lan hauekin biekin jazotakoa harrigarri samarra da, neurri batean, espero izatekoa zelako Iparraldeko itzultzaileek noizbait Poquelinen lanekin saiatu izana. Hala gertatu bada, itzulpenok ez dira gubanaino heldu, Shakespearerenez oso bestela. Eta bi aldiz harrigarri, hain suertez garai hartako antzerki moldeetako batzuek bizirik iraun dutelako gaur egun arte Molièrereren hizkuntza euskararen ondoan bizi den lurraldeetan. Zenbait eszenatan jatorrizkoaren erritmo arina ezin hobeto ordaindu du: bestelako moldaketarik

edo doikuntzarik gabe ozenki esateko eginda dirudite pasarte itzuli batzuek. Beharbada, Bergara inguruko otxokuarto moduko ordainek desegoki eman dezakete XVII. mendeko testu baten itzulpenean, edo laranja erdiaren metafora erabiltzea, baina ia ezinezkoa da testu historiko itzuli gehienetan diskroniaren bat edo beste ez agertzea, mende hartako euskara hutsean ematea zaila dateke-eta oso: inork ez daki benetan zelakoa zen osagai guztien aldetik.

Poquelinek, garai hartako antzerki jende guztiaren antzera, arazoak izan zituen botere politikoarekin. Alde batetik, lan handigurak prestatzen zituen gortearantz, eta, bestetik, etsaiei antzerki piezen bidez egiten zien aurre. Esaterako, garai hartan bazen talde frantziar indartsu bat, elizkoia guztiz, jendea espiatzen ibiltzen zena. Talde hura kritikatzeko du gogor Tartufo pertsonaiak. Egilearen etsaiek, ordea, beste zer edo zer ikusi zuten: "benetako" sinesmena eta sasi-sinesmena berdintzat hartzen zituela. Talde integrista hark *Tartufo* ez taularatzea lortu zuen. Handik gutxira, ordea, egilea berriro plazaratu zen indartsu, *Zekena edo gezurraren eskola* antzezlan zela bitarte. Harpagon protagonista onbidetsu eta zikoitzaren gainbehera (gizaldrak mota baten ikur dela) erakusten du lanak. Estrainaldi hartatik urte gutxira, 1763an, Jean-Baptiste ez tulka hasi zen antzezpenean bertan. Ikusleek obraren beharkizuna, trikimailua zela pentsatu zuten —nahita sartzen zituen testuetan pertsonaien ez tulak eta barrak, egileak berak pairatzen zuen gaixotasuna disimuluan joan zedin—, sendagileen kontrako satira zenez gero antzezlan. Egun hartan bertan hil zen, barren, ahotik odola zeriola, baina komediantek guren duten moduan, taula gainean, txaloen berotasunean. Antzezleak garai hartan eskomikaturik zeuden, beste asko legetxe, eta Saint Eustacheko parrokoak ez zion lur eman nahi izan; Parisko apezpikuak, ordea, idazlearen babesle ei zen errege Luis XIV.a ez haserrarazteko, baiezkoa eman zuen, baina egun argiz lurperatzea debekatu zuen, baita hileta zaratsurik egitea ere. Heriotza agirian ere ez zuten jaso antzezlea zenik

Tomas Iriarte alegiagileak gaztelerara itzuli zuen XVIII. mendean *Le malade imaginaire* eta Espresioarena taldeak Molièreren antzezlana bat eskaini zuen euskaraturik: *George Dandin, senar makilatua*.

Tamalgarria da, alde, edizio honetan izenburuak osorik ez ematea azalean bertan, alde edo moldez, traizio txiki moduko bat delako, direnak direla hala ez jokatzeko zioak. Eta ez da inondik inora ulergarri gertatzen (beste lan batzuetan ere hala jokatu dute) EIZIEren bermea duen bilduma batean. Guztiarekin ere, guk ere esan genezake Tartufo laneko poliziarekin batera "Nabarmen geratzen da, gutxien uste denean, / jator jokatzek saria duela azkenean".